

# Errenteria

HERRI BIZIA 

MENDE ERDI, ARTE ASKO

*Talleres Xenpelar, 50 años aportando arte*

Xenpelar  
Tailerrak

3. ORR. >>

Palestinaren  
murala

6. ORR. >>

Herri Bizia

8. ORR. >>

Errenteria  
Bizia

11. ORR. >>

Valeriano  
Leceta

12. ORR. >>

# Udal jakinarazpenak, azkar eta erraz

Udal jakinarazpeanak elektronikoki jaso ditzakezu modu erosoan. Horretarako e-posta helbide bat eta identifikazio digitalerako bide ofizial bat\* besterik ez duzu behar.



\*Oraindik ez baduzu, ZU! arreta zerbitzuan BakQ eskuratu ahal izango duzu

\*Si aún no dispones de él, podrás obtener BakQ en el servicio de atención ZU!



ERRENTERIA  
UDALA

## Notificaciones municipales, de forma rápida y sencilla

Puedes recibir cómodamente las notificaciones municipales de forma electrónica. Para ello solo necesitas una dirección de email y un modo oficial de identificación digital\*.



## Artisautzaren, ikus-entzunezkoen eta arte plastikoen sorlekua

Ikasturte honetan 50 urte bete dituzte Xenpelar Tailerrek. Dozenaka erreenteriarren sormen-habia bilakatuta, artisautza, ikus-entzunezko eta arte plastikoen erreferente bilakatu da ibilbidean zehar eta ez soilik udalerrian, baita eskualdeko gainontzeko herrientzat ere. Hasierako ilusioa du erregai nagusia abangoardiako eskaintza egiten duen udal zerbitzuak.

50 urte borobil bete dituzte Xenpelar Tailerrrek 2023-24 ikasturtean. Mende erdiak, erreferentziaztasun itzela eman die Errenterian, baina baita Oarsoaldean ere. Ez da harritzeko, lorratz sakona utzi baitute bere ibilbidean zehar aitzindaritza sendo bezain abangoardiakoa era-kutsiz unean-unean.

1973an Valeriano Lecetak jarri zituen martxan tailerrak, eta ordutik, ezinbestekoak izan dira ikus-entzunezkoen, arte plastikoen eta artisautzaren dinamizazioan. Pintura eta cerámica diciplinak lantzen zituzten hasieran, baina berehala hasi ziren dibertsifikatzen, eta argazkilaritza, oihalgintzarekin lotutako tailerrak, eta egur taila hasi ziren lantzen. Teknika artistikoak erakustearekin batera tailer okupacional ere izan dira, sorkuntza projektuetan lagundu dute, baina denaren gainetik, artea komunitatearen eskura jartzeko ezinbesteko baliabide izan dira.

Xenpelar Tailerrek hainbat mugarririk izan dituzte bidean. Hala, lehen udalekuen sorreran hartu zuten parte eta bertan biltzen ziren haurrak 1980ko hamarkadan, baita Gabonen bueltan ere; hala nola, larrubateko tailerrak arrakastatsuak ziren Foru plazako hegazkin-ontzi famatuaren beheko aldean, eta dozenaka haur pasa ziren haietatik Eskola Kirola ikastetxeetara heldu zen arte. Plastika ere Xenpelar Tailerren eskutik heldu zen Errente-



riako ikastetxe publikoetara, baita Lezokora ere; tailerrean aritzen ziren begiraleak joaten ziren hastapenen horretan eskolak ematera ikastetxetara.

Hasierako haien ilusio handiko garaia izan zirela du gogoan Iñaki Erkiziak. Argazkilaria da bera, eta azken 40 urtean argazkilaritzia irakasle ari da Xenpelar Tailerretan, «1985ean heldu nintzen ni bertara argazkilaritzia irakastera. Ilusio han-dia genuen denok, bitarteko gutxi, baina gogo bizia». Ilusio eta gogo hori bizikr mantentzen dute gaur egun.

50 urtean bost egoitza ezberdin izan dituzte Xenpelar Tailerrek: Portaviones bezala ezaguna zen Foru Plazako eraikina, kuartelilloa, Nies-sen, Miguel Irastorza ikastetxea, eta Merkatuzar. Udalak azaldu due-nez, azken horretan berariaz sortu zuten espazioa tailerrak hartzeko, eta horrek topaleku ezin egokiagoa eskaintzen diola nabarmendu du. Tailerrei dagokienean, berriz, punta-puntakoak direla nabarmendu udalak, eta urte hauetan guz-tietan zehar moldatzen eta eralda-

tzen joan direla pixkanaka, betiere gizarteak unean-unean eskatzen zuenera egokitzeo. Bidean, era-biltzaileen perfila ere aldatuz joan dela aitorru du Erkiziak. Tailerren gaineko begirada zabala du hark, ibilbide ia osoa egin duelako barru-barrutik: «Hasierako garaian haur eta gazteak ziren batez ere erabil-tzaileak. Gaur egungo gazteontzat hau ikasketa handia da, bizi garen gizar-tean ez dugulako aukerarik horrela aritzeko».

Horietako bat da Nahia Aguado. Zeramika tailerrean ari da parte hartzen eta hiru urtez sainatu bada ere, aurteno ikasturtera arte ez du plaza bat lortu Xenpelar Tailerretan. Zoratzen dago bertan, «ikasten eta gozatzen ikaragarri». Tailerrean, gazteek oso zaila duten zerbaite aurkitu duela dio: «Gaur egun gauza guztiak momentuan lortzen ditugu, horretara ohituta gaude txikitatik. Bat-batean hona iritsi, eta beste zerbaite aurkitu dut, berehalakotasun hori ez dago, irai-lean hasitako proiektua abenduan eraman dut etxera. Honek denbo-ra, lanketa, teknikak ikastea eska-tzen du».

Irakasleak behin baino gehiagotan errepikatzen dien ideia bat ere aipa-tu du. «Ofizio bat ez da egun batek bestera ikasten. Poliki eta mimoz egiten dugu lan, eta ikaragarrizko ikasketa izaten ari da hilabeteetan landutako proiektuaren emaitzak zenbateraino betetzen zaituen senti-ztea. Gaur egungo gazteontzat hau ikasketa handia da, bizi garen gizar-tean ez dugulako aukerarik horrela aritzeko».

Bere taldearen osaketari ere erre-paratu dio Errenerterian bizi den oiar-tzuarrak. «Hiru belaunaldi nahasita gaude taldean, eta hori ere gainba-lioia da, ekarpena egiten diogulako elkarri; erabat konektatu dugu».

Batzuk afizioagatik jotzen dute tai-lerretara, denbora betetzena beste batzuk, eta beste askok, berriz, tek-nikak ikasteko eta hobetzeko gri-narekin iristen dira, «denek lortzen duten emaitza ikaragarria da, oso positiboa», esan du Erkiziak. Ho-rren erakusle, ikasturte amaierako erakusketa jarri du, «hor ikusten da proiektu interesgarriak eta kalita-te handikoak egiten dituztela ikas-leek».

Irakasleak beste arlo bat nabarmen-du du, eta bat etorri da Aguado. Tailerretarako irisgarritasuneko arlo ekonomikoaz ari dira: «Denen eskura daude tailerrak, are gehiago azken urteetan. Izan ere, progresi-bitate irizpideak ezarri ditu udalak, eta horrek are eskuragarriago egi-ten ditu».

### Itxaron zerrenda

Denera 350 ikasle ari dira ikasturte honetan Xenpelar Tailerretan anto-latu dituzten 50 ikastaroetan. Dizi-plinak, honakoak: zeramika, egur taila, argazkilaritza, altzarien zahar-berritzea, patchwork-a, eta pintura. Merkatuzarrek hartzen ditu ikastaro guztiak, arratsaldez. Zeramika da arrakastatsuena azken urteetan: «Eskera mordoa jaso dugu eta jende asko gelditu da itxaron zerrendan. Eskuz egindakoetara itzultzen ari da jendea, eta batez ere gazteen artean aldetik ikusten da joera hori, uneoro digitalarekin ari gara lanean, eta pa-txadaz, lasai aritzeko, testurak uki-tzeko beharra dagoela nabaria da».

Hamabost urtez eskaini ez badute ere, ikasturte honetan, argazkilari-

tzako zuri-beltzeko laborategia be-rriro martxan jarri dutela kontatu du Erkiziak, eta lasai aritzeko eta testurak ukitu eta prozesuak bizi-tzeko behar horrekin lotu du berak ere. «Jende gazteak jakin nahi du nola egiten zen lehen, zer zen hori, neurri batean analogikora itzuli ga-rela esan daiteke; ez dakit zenbat denboraz izango den. Abangoar-dian gaude, eta aldi berean XIX. mendeko argazkilaritzara itzuli gara, eta hori hemen gertatzen ari da, Xenpelar Tailerretan».

Ezinezkoa litzateke kontatzea zen-bat jende pasa den 50 urte haue-tan Xenpelar Tailerretatik, baina dozenaka eta dozenaka erre-nteriar izan dira, «baita Oarsoaldeko beste herrietako bizilagunak ere, Errenerterian Xenpelar Tailerrek es-kaintzen duten aukera ez dagoela-ko beste inon inguruan», esan du harro Erkiziak.

Hasierako ilusio eta gogo berare-kin jarraitzen dute lanean, eurak ere egunerokoan ikasten, behar eta eskaera berrietara moldatzen. Bide onetik doazela sinistuta dau-de, Xenpelar Tailerrak 50 urte luze

Xenpelar Tailerrak son desde que iniciaron su andadura hace 50 años un referente local y comarcal de impulso a la artesanía y a las artes plásticas y audiovisuales. Creados por Valentín Le-ceta en 1973, han sido dinami-zadores imprescindibles de esas disciplinas pero no se han limita-do únicamente a la enseñanza de técnicas artísticas, sino que han colaborado en proyectos creativos, han funcionado como talleres ocupacionales... Pero, sobre todo, han sido y continúan siendo una herramienta indis-pensable para acercar el arte a la comunidad. De su mano lle-garon las clases de plástica a los centros de educación pública, o surgieron las primeras colonias de verano municipales estrecha-mente unidas a la creatividad y las manualidades.

Los talleres de cerámica, ta-lla de madera, restauración de muebles, fotografía y patchwork aglutinan a 350 personas en Merkatuzar, ofreciendo técnicas punteras y de vanguardia con las que enriquecer sus proyectos formativos. Junto a todo ello, la ilusión con la que iniciaron el ca-mino sigue siendo, a día de hoy, el motor que mantiene Xenpelar Tailerrak en esa posición de re-ferencia en el campo de las ar-tes plásticas y audiovisuales.

hauetan izan diren moduan, aurre-rantzean ere, ikus-entzunezko eta arte plastikoen erreferentziazo proiektu izaten jarrai dezaten.

2023ko abenduan egindako Giza Eskubideen XI. Jardunaldien harira, Bakerako Lankidetza Batzarrarekin elkarlanean, eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin, Eva Mena muralistak palestinarren eskubideen urraketak salatzeko murala egin du Aralar plazan. La Basu, Arianna Puello eta Dinamiin artisten 'Emakume gerlariak' ('Mujeres guerreras') abestian oinarrituta dago horma-irudia.

Errenteriako Udalak palestinar herriarekiko konpromisoa du. Zentzu horretan, larrialdi humanitarioetako diru laguntza lerroaren bidez, Palestinako herriaren babeserako hainbat proiektu eta elkartea lagundu ditu. Herri horrek Israelgo Estatuaren indarkeria jasan bitartean laguntza horiek mantentzeko asmoa du Udalak.



Con motivo de las XI Jornadas de Derechos Humanos celebradas en diciembre de 2023, en colaboración con la Asamblea de Cooperación por la Paz, y en colaboración con la Diputación Foral de Gipuzkoa, la muralista Eva Mena ha realizado un mural en la plaza de Aralar para denunciar las violaciones de los derechos de los palestinos. El mural está basado en la canción «Mujeres guerreras» de La Basu, Arianna Puello y Dinamiin.

infórmate del día a día en  
herriko egunerokotasunaren  
berri izateko  
[>>](#)



## HERRI BIZIA

herribizia.erreenteria.eus



### [Agustina Otaola pilotalekua, berritua](#)

Se han renovado el suelo de la cancha, el frontis, y las gradas.

8

### [Del Guadalquivir, al Oiartzun](#)

Apirileko Feria, herriaren aniztasun kulturalaren beste adibide bat.



### [Sagardo Eguna, a lo grande](#)

Berriz ere milaka herritar sagarraren zukuaren festan.



### [Dantzari gazteenen erakustaldia](#)

Dantzari Txiki Eguna, referencia indispensable en la vida cultural de la villa.

9



### [Erromeria giroan](#)

Gran ambiente en la romería del Día de San Marcos.



### [Agustinak Zentroa, centralidad creadora](#)

Martxan da kultur eta sormen industrien sustapenerako zentroa.





**Igerian  
gusturago aritzeko**  
Fanderiako igerilekuak  
estalki eta klimatizazio  
sistema berriak ditu.



**Errenerterian 11 Kolore,  
diverso y plural**  
Errenerteria kulturanitza dela  
agerian gelditu da berrizo.



**DYA, madalenetan  
omendua**  
La comisión ciudadana ha  
decidido que DYB sea la  
entidad homenajeada en las  
fiestas patronales.



**Argazki zaharra**

1972ko 'Oarso' aldizkarian argitaratutakoa da ondoko irudia. Gaur egun herriko kulturaren, hezkuntzaren eta merkatartzaren ikurra den Niessen zentroa denean. Bertan, izen bereko fabrika eta udal pilotalekua izan ziren, besteak beste. Iruñan oraindik ere estali gabe ageri da kirol azpiegitura, ondoren egin zuten estalkia. Erdigunean urte askoz herritarrei zabalik izan zen kirol azpiegitura nabarmenena izan zen hura. Egun, Agustina Otaola pilotalekua da horren oinordeko.

**Ba al zenekien...**

Se han presentado 47 poemas  
al primer concurso de poesía

Con motivo del día mundial de la poesía, el Ayuntamiento de Errenerteria puso en marcha por primera vez un concurso de poesía. En total se presentaron 47 poemas, 13 en euskera y 34 en castellano. Además, el origen de las personas participantes ha sido muy diverso, ya que además de artistas tanto de Errenerteria como del resto del estado, también se han recibido obras desde otros lugares, por ejemplo, desde Cuba. El jurado ha decidido que el mejor poema en euskara sea el de Iñigo Legorburu Arregi, y el de lengua castellana el de Pablo Llanos Urraca.



**Txoko bat**

Kulturaren plaza da Xabier Olaskoaga. Batetik, ondoan dituelako Niessen Kulturgunea, Herri Arte Eskola, Niessen zinemak eta Eresbil Euskal Musikaren Artxiboa, besteak beste. Bigarrenik, zentroko bilgunearen izenak berak ere herriko kultur ondareari aitortza egiten dio, Xabier Olaskoaga Lasa (Errenerteria, 1918-1997) musikazale, bertsozale eta euskaltzalearen omenezkoa delako. Mugimendu handiko plaza da, arkupeaduna, eta ostalaritza guniek osatua. Herriko bizitzaren erakusle da, erreneriarren ia etenik gabeko joan-etorrien lekuko.



Valeriano Leceta, 2008ko  
apirilaren 10ean udaletxerean  
egin zuen bisitan.

# Valeriano Leceta, el artista ‘mecenas’

**Donostiarra de nacimiento Leceta, pintor y profesor, dejó impronta en Erreteria y sus habitantes. Aún hoy su legado es palpable.**

**L**os talleres Xenpelar cumplen medio siglo. Para muchos erreterriarras, siempre han estado ahí, pero fue el impulso de un donostiarra quien los puso en marcha. Según recoge la enciclopedia Añamendi, Valeriano Leceta Gabarrain —que así se llamaba— fue capuchino, y se ordenó sacerdote en Iruña. Sus superiores lo enviaron a

la Escuela Superior de Bellas Artes de Valencia a estudiar una carrera, y a poder ejercerlo en el País Valenciano. Regresó a navarra para ejercer como profesor de Artes Plásticas en el Seminario de Altsasu.

Pidió a sus superiores que le destinaran a América para trabajar en la renovación del arte religioso siguiendo las consignas del Conci-

lio Vaticano II. Lo enviaron a Quito, donde organizó unos seminarios en el Instituto Ecuatoriano de Cultura Hispánica y conoció a una ayudante, Clara Luz, que iba a influir decisivamente en su vida. Siguió con su periplo en Colombia, para volver a Ecuador y de allí saltar el charco volviendo a Europa.

Concretamente —y aquí empieza la relación con nuestra villa— entró en contacto con la Ciudad Laboral Don Bosco. Se puso a trabajar en nuestro municipio, siendo nombrado jefe del Departamento de Expresión Plástica.

Dejó huella en la década de los 70 del pasado siglo. El alcalde de entonces, Ramón Múgica, le recomendó que pintara un mural en la Sala Capitular de la casa consistorial. Se iban a limpiar tanto la fachada de la parroquia como la del propio Ayuntamiento. Leceta se puso manos a la obra, y así creó el mural que preside el salón principal del edificio municipal.

Recibió una única directriz del entonces alcalde: que el mural fuera comprensible para el pueblo. Leceta recogió los contrastes sobre los que Erreteria ha construido su identidad: los marineros y basterriarras; la nobleza y el pueblo llano; laicos y clérigos, además del estamento militar que tuvo que defender las murallas; los vándulos que sujetan el escudo de la villa, con la ayuda de un obrero; el mar y la montaña, representada por la siempre testigo majestuosa Peñas de Aya; en el otro extremo, el más futurista, aparecen las torres modernas que jalona las colinas de la

Erreteria industrializada. También se pueden apreciar —en el lado de recho— las diversas profesiones que dieron pujanza al municipio.

El mismo Leceta restauró la obra en 1998, cuando se llevó a cabo una profunda reforma del salón de plenos. Para celebrar el medio siglo de la obra, además de la segunda limpieza llevada a cabo este curso, también se han puesto en marcha varias iniciativas. Entre otras, actividades artísticas en las escuelas o la proyección de un video mapping, o animación lumínica, prevista para este otoño y realizado en colaboración con agentes culturales del municipio.

De aquella misma época es el otro legado que dejó Leceta en Erreteria, siendo artista ejerció un cierto tipo de mecenazgo, si se permite la expresión. La Plaza de los Fueros no era tal como hoy la conocemos. Ahí, hace más de medio siglo, existía un edificio al que se le conocía como ‘El portaaviones’. En uno de sus locales se fundó el taller municipal de artes plásticas Xenpelar, el 10 de enero de 1973. Empezaron con diez alumnos, y tras pasar por lo fue el cuartelillo de la calle Magdalena, un local de la antigua fábrica Niessen y Miguel Irastorza, ahora se encuentra en Merkatuzar. Es cierto que Leceta dejó pronto su responsabilidad, pero sin su impulso no habría nacido lo que en principio fue un taller de pintura y que pronto abrazó otras disciplinas del arte. Hoy en día 300 alumnas y alumnos aprenden arte en los talleres.

Leceta dejó su relación con Erreteria. Siguió como profesor en el seminario de Lekaroz (Baztán), y

ejerció como concejal en el valle. Las relaciones venideras con nuestra villa fueron esporádicas. Aparte de para restaurar su propio mural en 1998, realizó una visita una década después. El 10 de abril de aquel año, visitó la casa consistorial, acompañado por sus compañeros de la residencia de ancianos de Txara 1, en Intxaurrondo. Les enseñó su obra, dándoles un buen número número de explicaciones sobre la misma.

Leceta falleció el 8 de noviembre de 2011, en la ciudad que le vio nacer.

Como pintor expuso en Madrid, Zaragoza, Valencia, Huesca y Roma. En América dejó recuerdo imperecedero con la realización de la Catedral de Chone, el complejo parroquial de la Sagrada Familia de Guayaquil, el templo de Cristo Redentor, la capilla del Cementerio, la iglesia de Sucre y las de Gualea y Luján, todas en Ecuador y, además, el Baptisterio de Rionegro y el Presbiterio de la Bonanza en Bogotá.

Y, por supuesto, dejó su firma en Erreteria.

Xenpelar Tailerren inaugurazioaren irudia. Ezkerretik hasita, laugarrena da Valeriano Leceta.



# Erreenteriaren alegoria

Victoriano Leceta Gabarainek Ramon Mugica alkatearen enkargua jaso zuen: pleno aretoko horma-irudia margotzekoa. Momentu horretan Don Boscoko irakasle zen margolari donostiarra. Lecetak berak idatzi zuenez, Mugicak iradokizun moduko baldintza jarri zion: «Saia zaitez margotzen duzun hori ulergarria izan da din. Herriak ulertu behar du».

Lecetak 1974ko Oarso aldizkarian aitortu zuenez, bere ustez artelanen printzipioetako bat da egilearen beraren estetika kontzeptuaren eta gaitasunen mugen harago ez lukeela beste irizpiderik egon behar. Hala ere, artista bakoitzak kanpo-faktoreez baldintzatuta dagoela uste zuen, baina —bestalde— «balore goren» batzuk ezin zirela gainditu.

Hori guztia kontuan hartuta, hiru metroko garaiera eta sei metroko luzera zuen margolana irudikatzeari ekin zion Lecetak. Pleno aretoaren izaeraren hurbilekoa izan behar zuen gaiak, baina, aldi berean, Erreenteriaren garaiko demografia —estatuko beste toki batuetatik etorritako biztanle askorekin— kontuan hartu behar zuen. Orainaldia, etorkizuna eta iragana lotuko zituen katebegia izan behar zuen, eta horregatik hiribilduaren historiaren alegoria osatu zuen, hainbat elementu batuz.

Ezkerreko aldea iraganaren adierazpena da. Erreenteriaren historian

—1320an herri karta jaso zuenetic— protagonista izan diren giza-taldeak agertzen dira, Lecetak berak azalduta: nobleak eta herri xehea; apaizak eta laikoak; zibilak eta defentsa-lanetan aritu ziren militarrak. Gainera, itsasoak harresiak busti zituela gogorarazten du, baita itsasora begira bizi zela ere, hora izanik udalerriaren lehenengo industria antolatuetako bat. Erreenteriaren gertaera guztien lekuko mutua agertzen da goiko zatian: Aiako Harria.

Eskuineko aldea, berriz, orduko Erreenteria garaikideari erreferentzia da. Testuinguru industrializatu batekin, orduko indargune ekonomikoak agertzen dira: olagizonak, baserritarra, arrantzaleak, baserritarra, artzainak, lantegietako teknikariak, ehungintza industriako enplegatuak... Iragana eta eta oraina elkarri begira jarri zituen, eta tartean, harmonia sortzen, herriaren folklorea.

Erdigunean, berriz, Erreenteriaren armaria agertzen da, bi bardulia-rek jasota, langile batek lagundua. Legenda bat ere badu: Villanueva de Oiarso 1320 Villa de Rentería... Hiru puntu horiekin etortzeke dauden garaia irudikatu nahi izan zituen Lecetak. 2023. urteko azaroan zaharberri zuen Udalak murala, aurten 50 urte bete dituelako. Iru-dian, zaharberriaren une bat.





# Guretzako. Más cerca.

ZU! arreta bulego berria iritsi da  
goiko auzoetara.

La nueva oficina ZU! llega a los  
barrios de la zona alta.

## ZU! Gertuago.

BERAUN · GALTZARABORDA · KAPUTXINOAK · ALABERGA · IGANTZI



HELBIDEA / DIRECCIÓN  
**Aldakonea, 2**



ORDUTEGIA / HORARIO  
Astelehenetik ostiralera  
De lunes a viernes  
**08:00 - 14:00**

**943 449 600 / 010**  
[zu@errenerteria.eus](mailto:zu@errenerteria.eus)



ERRENERTERIA  
UDALA